



Beasaingo udala

Beasaingo udal aldizkaria

beasain


68 egunez egun

2015eko iraila



Jaietan murgilduta ekingo diote
ikasturte berriari Beasaingo auzoetan

2 hitzaurrea - inkesta 3 udal euskaltegia 4-5 auzoetako festak 6 gipuzkoako
bertsolari txapelketa 7 kirola 8 laburrak



Ikasturte hasiera festa giroan

Ambiente festivo para comenzar el curso

Iraila. Buruhila ere deitzen omen zaio, sasoi batean Euskal Herriko eskualde batzuetan hilabete honetatik aurrera hasten zelako urte berria. Gurean, ikasturtea den heinean, buruhila da noski.

Askori oporraldia agortu bazaio ere, ezingo dugu beasaindarrok festa giroa agortu zaigunik esan. Irailak, urtero bezala, auzoz auzo festarik festa garamatza. Hasi Erauskin eta Beasainmenditik, Igartza, Arana-Bideluze eta Lazkaibaraino.

Ez da guztia barrea eta algara izango, ordea. Igartzan eta bertako festaren inguruan, 9. urtez sokan ikusiko ditugu dantzariak. Aurten, halere, ekitaldi berezia izango da, guztiok izango baitugu Joseba Juarez dantzari ordiziarra zena gogoan. Lehenengo aldiz, gavez egingo da ekitaldia eta argituko ahal du Josebaren argiak soka luzea! Haritz kimu bat landatuko dugu bere omenez.

Bestetik, neskak, orokorrean, beren gustuko kirola egin ahal izateko bizi du-

ten gazi-gozen berri ere irakurri ahal izango duzu orrialde hauetan.

Aurten, aitzitik, bereziki da hunkigarria horretaz jardutea. Baloia aitzaki, oraindik Irantzu ataundarraren alaitasun eta *letxea* baitugu bidelagun. Berebiziko erronkei egin behar izaten diete aurre oraindik ere neskek. Bejondeiela!

Bertsoei ere egingo zaie tartea irailean, 20an hain zuzen ere. Gipuzkoako Txapelketako kanporaketa jokatu baita. Gipuzkoako txapeldun izana eta Euskal Herrikoan txapela jartzeko moduan jardundako Aitor Sarriegik, eta Iñaki Apalategi eta Gema Urteaga gazteek kontatu digute nork bere muturretik nola ikusten duen bertsolaritza eta txapelketa.

Euskara erabiltzeko urratsa eman nahi duenak, aukera paregabea du Beasaingo Udal Euskaltegian. Mari Paz Martin zuzendariak, eskarmentuaren haritik tiraka, eskaintzaren berri eman digu.

Hilabetearen bukaeran ere ez da ekitaldirik faltako, Mutur Beltz egunean hainbat ikuskizun antolatu baitira.

Ea ikasturtea iraila bezain emankorra den guztiontzat! Gogoan izan gure zahirrek ziotena: «Lantze onak uzta onak dakartza».

Septiembre. Un mes que, en algunos rincones de Euskal Herria, marcaba el comienzo del año. Hemos dejado atrás las vacaciones, pero todavía conservamos las ganas de fiesta. Durante todo el mes, Beasainmendi, Igartza, Arana-Bideluze y Lazkaibar se engalanan por sus fiestas. Uno de los actos destacables es la plantación de un retoño de roble que tendrá lugar en Igartza en recuerdo del dantzari de Ordizia Joseba Juarez.

En estas páginas, además, las chicas nos dan cuenta de los momentos agrícolas que viven para practicar el deporte que les apasiona: el fútbol.

Aitor Sarriegi, Gema Urteaga e Iñaki Apalategi, bertsolaris de Beasain, nos dan su opinión sobre el próximo campeonato y sobre el bertsolarismo.

Mari Paz Martin, por su parte, informa de la oferta del euskaltegi municipal y anima a los y las beasaindarras a que aprendan euskara.

Mutur Beltz Eguna cerrará el mes con muchísimos actos interesantes.

Ójala que este mes sea tan fructífero para todos y todas las beasaindarras! Y recordad el refrán: «Quien bien siembra, bien recoge».

> inkesta Zer espero duzu ikasturte berriaren aurrean?



June Aurrekoetxea

Aurten ikastetxez eta herriz aldatuko naiz. Aldaketa handia izango da niretzat baina ondo moldatzea espero dut; lagunak berehala egingo ditut.



Leire Nazabal-Nahia Mujika

DBH1ean hasiko gara aurten eta Loinazpe ikastetxera joango garenez, beste herrietako lagun berriak egingo ditugu. Ilusioa handiarekin gaude.



Enaitz Etxeberria

Niretzat iaz izan zen aldaketa handiagoa, eskolaz aldatu nintzelako. Aurten hala ere, gehiago saiatuko beharko dudala uste dut.



Mari Paz Martin > Directora

'El euskara abre muchas puertas'

El Euskaltegi Municipal de Beasain abrió sus puertas en septiembre de 1987. Fue una continuación de la Goierriko Euskal Eskola que durante años ofreció clases en Beasain, pero ya de una forma oficial o más reglada. Mari Paz Martin forma parte de la plantilla desde entonces.

¿Cuántos alumnos han pasado por el Euskaltegi desde entonces?

En total unos 4.000 alumnos y alumnas en diferentes cursos, ritmos y módulos. Cada año, se matriculan alrededor de 140 alumnos.

¿Cuál es el perfil de los estudiantes?

La mayoría son de Beasain, pero también hay estudiantes de los pueblos de alrededor: Ordizia, Lazkao, Idziabal o Itsasondo. Un 65.70% son mujeres, tendencia que observamos desde la apertura del centro. Son alumnos mayores de 16 años y su edad media gira en torno a unos 35 años. En este caso, la media ha ido subiendo poco a poco con los años.

¿Se considera importante aprender euskara para encontrar empleo?

Sí, es una de las motivaciones que atraen al alumnado, aunque no es la única. Por otra parte, los alumnos y alumnas que se encuentran en paro, aprovechan la situación para aprender, formarse y obtener algún título que puedan presentar a la hora de buscar empleo. Este año, al igual que el anterior, tenemos una oferta de matrícula gratuita para personas desempleadas empadronadas en Beasain, cumpliendo una serie de requisitos, que ha tenido buena aceptación.

¿Qué ofrece el Euskaltegi?

Por una parte, tenemos clases presenciales en distintos módulos y ritmos, siendo



el más habitual el de 10 horas semanales, de lunes a jueves, aunque también ofrecemos un módulo de 5 horas semanales y cursos intensivos de 3 meses. Luego están los cursos de verano, en julio y septiembre.

Por otra parte, ofrecemos clases de autoaprendizaje a través del sistema Boga on-line con un tutor o tutora. Este sistema responde a un perfil de alumnado con otras necesidades.

Además, ofrecemos cursos destinados a diferentes colectivos: comerciantes, empresas, administración, talleres o cursos breves con distintos objetivos enfocados a la práctica de la lengua, oral o escrita, y cursos específicos para la preparación de exámenes, además de los cursos on-line de nivel C2.

¿Es posible adaptar los cursos a las necesidades de cada alumno?

Sí, procuramos que así sea e invitamos a

quienes estén interesados/as a acercarse al Euskaltegi para estudiar sus necesidades y las posibles alternativas.

¿Qué le diría a la gente para que se anime a aprender el euskara?

A quienes nunca se han animado pensando que es muy difícil les diría que dejen de lado los tabúes y los miedos, pues, aunque exige dedicación y trabajo, como cualquier otra lengua, el euskara abre muchas puertas: a otra cultura, al mundo laboral, a conocer gente nueva, y, en definitiva, contribuye a facilitar la convivencia y a reforzar el sentido de comunidad en el pueblo.

Maria Jesus Posa

«Estoy muy a gusto en el euskaltegi. Tengo intención de seguir; es algo que, si no sigues, pierdes».

F.J. Aizpun

«Después de un tiempo que lo dejé, hace un año que he vuelto al euskaltegi. Me cuesta empezar a hablar, pero tengo intención de seguir de aprendiendo».

CURSO 2015-2016 IKASTURTEA

Izen ematea Irailaren 7tik 22ra / Del 7 al 22 de septiembre

J.M. Iturriotz, z/g - behea (Lanbide parean / frente a Lanbide)
943 02 81 00 - euskaltegia@beasain.eus



Pedro Centol, Xabi Txasko, Enkarni Arrieta eta Imanol Martinez

Iraila, auzoetako festen hilabetea

Bizi-bizia izaten da iraila Beasainen; besteak beste, astebururo, herriko auzoren batean, festak izaten direlako. Aurten, irailaren 6an Beasainmendikoak izango dira; 11tik 13ra, Igartza-Loinazkoak; 18tik 20ra, Arana Bideluzekoak; eta irailaren 24an eta 27an, Lazkaibargoak.

Beasainmendi, irailean lehenak

Enkarni Arrieta burubelarri aritzen da Beasainmendiko jaien antolaketan. Auzotarrek 36 urte daramatzate iraileko lehenengo igandean festak antolatzen. Irailaren 5ean antolakuntzan ibiltzen diren 50-60 lagun elkartzeko dira mahaiaren bueltan. Afalondoren, mus txapelketa jokatuko dute; «sariak eta guzti izaten dira» bertan.

Igandean, irailaren 6an, goizeko zortzietarako hasiko dira suziriak botatzen «giroa berotzeko eta animatzeko». Usurbera igoera lasterketa, meza Usurbeko gurutzean, bertsolariak, trikitalariak, auzoko bikote helduenari eta Jokin Leunda zenari omenaldiak, herri kirolak, bazkaria, haurrentzako jokoak eta erromeria izango dira festaren ardatz.

Lanak badu ordea ordaina. Arrietak aurreratutakoaren arabera auzotarrek egun bateko txangoa egingo dute festak pasa ondoren.

Igartza-Loinatz, ekintzaz blai

Loinazko Ama Birjinaren eguneko asteburuan ospatzen dituzte Igartza-Loinatz auzoko jaiak. Aurten, dena den, aurretik ere izango da festa usainik Xabi Txaskok aurreratutakoaren arabera:

«Irailaren 5ean Leire Contreras igeriketa txapelketa eta arratsaldean Igartza-Loinatzko duatloia jokatuko dira».

Ekintza ugari antolatzen dituzte Igartza-Loinatzko auzotarrek. Txaskorentzat azpimarragarrienak irailaren 11ko ardo dastaketa, 12ko zezentxikiak eta Igartzako dantzari kofradiaren saioa dira, baita 13ko herri bazkaria ere. Loinatz futbol zelai ondoko aparkalekua izaten dute festa gune nagusi.

Arana-Bideluze, haurrak ardatz

Arana-Bideluzen «duela hamabi bat urte» berreskuratu zituzten festak. Hala dio Imanol Martinezek auzotarrak. «Batez ere, hurrei zuzendutako festak antolatzen ditugu», dio. Ekintzarik nabarmenenak ostiraleko buruhandiak



Ezkerrean Beasainmendiko festak, Usurbeko igoera. Eskuinean Igartza-Loinatz auzoko festetan, patata tortila lehiaketa.

eta txokolate jana, larunbateko karaokea, eta igandeko haur jokoak eta antzerkia izaten dira. «Ostiral gauen musika diskoa eta larunbatean kontzertua ere izango dira», gaineratu du.

Lazkaibar, auzotarren zita

Lazkaibar auzoko Pedro Centolek dioen bezala, «gaur egungo Lazkaibar auzoko festek ez daukate garai batekoarekin zerikusirik». Hala ere, auzotarrak elkartzeko egunak izaten dira Mesedetako Andre Mariaren omenezkoak. Irailaren 24an, 18:00etan, Arangoiti egoitzara joango dira jai-batzordeko ordezkariak, eta ondoren, afari merienda egingo dute. Igandean, 27an, lagunarteko bazkaria egingo dute. Bazkailondoan Beasaingo txistulariak izango dituzte lagun, eta dantzari batek Agurra dantzatuko die bertaratuei.

Iraileko festak

- > Irailak 5 eta 6: Beasainmendi.
- > Irailak 11-13: Igartza-Loinatz
- > Irailak 18-20: Arana-Bideluze.
- > Irailak 24 eta 27: Lazkaibar.

En Beasain el mes de septiembre es el mes de fiestas en los barrios: el primer fin de semana se celebrarán las fiestas de Beasainmendi; en el segundo, las del barrio Igartza-Loinatz; en el tercero, las de Arana-Bideluze; y el 24 y el 27 de septiembre, las de Lazkaibar.

Según Enkarni Arrieta, en Beasainmendi llevan 36 años organizando fiestas en Agorta. Este año se celebrarán el 5 y el 6 de septiembre. «La subida a Usurbe, los y las bersolaris, el deporte rural, la comida y la romería serán el centro de las fiestas», subraya Arrieta.

En el barrio Igartza-Loinatz, uno de los focos importantes es la duatlón de Igartza. Este año será el día 5, según

ha adelantado el vecino Xabi Txasko. Los actos más significativos serán la cata de vinos del día 11; becerrillos el día 12 y la comida popular del día 13.

En Arana-Bideluze, Imanol Martínez cuenta que recuperaron las fiestas «hace unos doce años». Hoy en día la mayoría de los actos son para los niños y niñas. Según Martínez, los actos principales son los siguientes: el viernes, cabezudos y chocolatada; el sábado, karaoke; y el domingo, juegos y teatro.

Tal como recuerda Pedro Centol, por su parte, «las fiestas de Lazkaibar poco tienen que ver con las fiestas que se celebraban hace años». Pero cada 24 de septiembre siguen reuniéndose el vecindario del barrio. «El día de la Merced a las 18:00 visitamos Arangoiti y a las 20:00 nos reuniremos en torno a la mesa con una *afari-merienda*». Asimismo, el próximo domingo, el 27, en la comida popular se rendirá homenaje a la pareja mayor de Lazkaibar bailando el *Aurreku*.



Ezkerrean Arana Bideluzeko festak. Irailaren amaieran izango dira Lazkaibargo festak.

Beasain Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarekin estuki lotuta

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Beasainen hasiko da irailaren 20an. Bi beasaindar ariko dira txapelketan: Gema Urteaga eta Iñaki Apalategi. Azken txapeldunak, Aitor Sarriegik, ez du parte hartuko.

Azkeneko Gipuzkoako bertsolari txapeldunak, Aitor Sarriegi beasaindarrak, txapelketan ez parte hartzea erabaki badu ere, beste bi herritar arituko dira Gipuzkoako txapelketan Beasainen ordezkari: Gema Urteaga eta Iñaki Apalategi.

Udazkenean abiatuko da Gipuzkoako Txapelketa. Beasainen jokatu da lehen kanporaketa. Irailaren 20an izango da saioa Usturben, 17:00etan.

Gema Urteaga, lehen aldiz

Gema Urteagak lehenengo aldiz hartuko du parte Gipuzkoako txapelketan. «Gutxienez 18 urte behar dira parte hartzeko eta duela lau urte jokatu zenean 16 urte neuzkan», dio berak. Uda berrian kanporaketa fasean final zortzirenetan kantatzeko txartela lortu zuen. «Txapelketa hasi nueneko helburu bera daukat orain ere: ahal dudan ondoen aritzea eta oholtzan gozatzea. Gero, etorri behar dena etor dadila».

Iñaki Apalategi, finalista

Iñaki Apalategi final laurdenetan sartuko da zuzenenan, azkeneko txapelke-



Gema Urteaga, Iñaki Apalategi eta Aitor Sarriegi.

tan finalista izan zenez. «Orain dela lau urte finalera iritsi izanak ez du inongo ziurtasunik ematen. Aurreko txapelketan bezala, helburua da fase bakoitza pasatzea. Finalera iritsiz gero ikusi dugu zer gertatzen den».

Agur esan du Aitor Sarriegik

Orain urtebete erabaki zuen Gipuzkoako txapelketan berriz ez parte hartzea Aitor Sarriegik. «Gipuzkoako txapelke-

tan parte hartu gabe Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko pribilegioa badaukat eta oraingo honetan garbi neukan ez nintzela aurkeztuko. Aurrekoan ere baneukan pribilegio hori baina joan egin nintzen». Txapelketen erritmotik atera nahi izan du bertsolariak: «Aurten behintzat atsedena behar dut». Oraindik erabaki gabe du Euskal Herriko bertsolari txapelketan parte hartuko ote duen.

Bertso eskolako matrikulazioa 2015-2016



Izen ematea: Ikastetxeetan, udaleko euskara zerbitzuan (943 02 80 63 edo ebpn@beasain.eus) edota 649 011 262 telefonoan. Irailaren 30era arte.

Prezioa: 30€

Ordutegia eta eguna: Izena ematen dutenen artean adostu beharko da. Eskolak urrian hasi eta maiatzean amaituko dira. Astean ordu beteko saioak.

Matrikula zabalik





Koldo Zaldua eta Maddi Larrañaga >

Entrenatzailea eta futbolaria

«Betaurreko desberdinekin ikusi behar dugu nesken futbola, bestela beti atzera egingo du»

El Club Deportivo Beasain lleva diez años impulsando el fútbol femenino y gracias a la colaboración entre los clubes de Lazkao y Beasain de estos últimos años, el equipo está compitiendo en la Liga Vasca. La nueva temporada comenzará el próximo día 27 de septiembre.

Zenbat urte daramazue nesken taldearekin? Zein mailatan zabilzate?

Koldo Zaldua: 10 bat urte.

Maddi Larrañaga: Ni kadeteetan hasi nintzen Loinazperekin. Kadeteetatik zuzenean pasa ginen lurraldeko txapelketara. Orain Euskal Ligan gabilta.

K.Z.: Jubenil talderik ez daukagu eta horregatik pasatu izan dira zuzenean gora. Arazo hori konpontzeko aurten Lazkaorekin elkartu gara taldeen eskaiera guztia lortzeko. Kadete eta jubenil mailakoak Lazkaon dabilta eta Euskadiko Ligakoak Beasainen.

Neskek futboleantzat jokatzeko elkarlana garrantzitsua izango zen ezta?

M.L.: Bai, orain aukera daukagu mailaz maila futboleantzat jokatzeko.

K.Z.: Bai, Beasain taldeak gainera beti egin izan du nesken futbolaren aldeko apustua. Era batera edo bestera, baina beti egin du apustua. Onartu behar da

neskena zailagoa dela. Begiratu mutilen futboleant zer nolako egitura daukagun; neskenen talde bakarra daukagu.

Aldatzen ari da nesken futbola?

M.L.: Bai, asko. Gaur egun behintzat futboleant jokatzeko aukera dago.

K.Z.: Garbi dagoena da denok ohitu garela eta ikasi behar dugula nesken fut-

bolaz. Betaurreko desberdinekin ikusi behar dugu nesken futbola. Mutilen indarra, abiadura...beste kontu bat da, ez dago konparatzerik. Konparatuz gero, beti atzera egingo du nesken futbolak. 15 urteotan asko hobetu da nesken futbola; ez da lehengoa.

Entrenatzailearentzat desberdina al da?

K.Z.: Bai, erabat desberdina. Konpromiso aldetik mutilek ematen ez dutena daukate neskek, futbola ulertzeko era desberdina dute. Aldagelako kontua ere hor dago, ezin duzu berdindatu. Gero eta neska gehiago ari dira entrenatzaile titulua ateratzen eta futbol munduan sartzen.

Futbol eskolan neska dezente dabilta.

K.Z.: Bai, aurten 21 neska ibili dira. Entrenatzaileak ere bertako neskek izan dira. Hurrengo denboraldian alebiren taldea aterako dugu lehenengo aldiz. Infantilen taldea ere atera nahi dugu.



Irantzu Aizpuru gogoan

Maiatzaren 3an Mexikon autobus istripuan hil zen Irantzu Aizpuru eta Beasain taldearen arima izan zen urte askoan.



Badator Mutur Beltz festa

Badator bigarren ez Mutur Beltz 2015; aurten irailaren 25etik 27rako asteburuan ospatuko da. Mutur Beltz beasaindarron festa da, nor ginen eta nor garen gogoratzeko festa. Horretarako urte ezin hobea izango da aurtengoa, herriak 400 urte bete dituenekoa.

Iazko Mutur Beltz Pintxoan maila ikusirik, gainera, aurten ere egitasmo aberatsa antolatzen ari da Beasaingo Udala Igartzako Kultur Mahaiarekin.

Beasain acogerá la fiesta Mutur Beltz por segundo año consecutivo, del 25 al 27 de septiembre. Mutur Beltz es la fiesta que recuerda quiénes fuimos y quiénes somos. Con la celebración del cuarto centenario de Beasain éste será un año especial.

Trás el éxito cosechado por el pintxo Mutur Beltz, el Ayuntamiento de Beasain, junto con la Mesa de Igarza, ha organizado un evento muy especial.

Berdintasun ikastaroak- Formación de género

Autodefensa feminista

Emakumeentzako ikastaroa. Gutxienez, 10 laguneko taldea osatu behar da.

> Udal langileentzat. Izena ematea irailak 15 arte. Ikastaroak: irailaren 22an eta 23an, 9:00etatik 13:00etara Batzar Aretoan.

> Herritarrentzat. Izena ematea, irailak 8 arte. Ikastaroak: irailaren 11an eta 18an, 16:00etatik 20:00etara (lau orduko bi saio). Euskaraz edo elebiduna, partaideen arabera. Batzar Aretoan.

Formakuntza feminista

Gutxienez 15 laguneko taldea osatu behar da.

> 'Genero eta Berdintasuna I. Urratsa'. Izena emateko epea: irailaren 15 arte. Ikastaroa 2015eko irailetik 2016ko apirilera arte egingo da. Hasiera irailaren 25ean (bi ordu eta erdiko saioak, hilean behin). Elebiduna. 17:00etatik 19:30era. Batzar Aretoan.

> 'Genero eta Berdintasuna. II. Urratsa'. Bigarren urratsa 2016ko maiatza eta ekainean emango da.

> 'Emakumeen ahalduntzea, elikaduraren bidez'. Izena emateko epea irailak 22 arte. Urritik apirilera izango da, asteartero. 17:30etik 19:30era. Euskaraz edo elebiduna, partaideen arabera. Batzar Aretoan eta elkarte batean.

Maskulinitate tailerra

Maskulinitateen inguruko tailerra gizonetarako. 'Aitasun arduratsu eta berdintasunezkoak'. Gutxienez 10 laguneko taldea osatu behar da.

> Herritarrentzat. Izena ematea, irailak 22 arte.

Ikastaroa irailaren 30ean izango da. Euskaraz, itzul-tzailearekin. 18:00etatik 21:00etara, Igartzan.

> Udal langileentzat. Izena ematea irailak 22 arte.

Ikastaroa urriaren 1ean izango da; 9:00etatik 13:00era. Batzar Aretoan.

Autodefensa feminista

Formación para mujeres. Mínimo 10 personas.

> Trabajadoras del Ayuntamiento. Plazo de inscripción: 15 de septiembre. Taller: 22 y 23 de septiembre.

> Formación abierta. Inscripción: 8 de septiembre. Taller: 11 y 18 de septiembre.

Formación feminista

Mínimo 15 personas.

> 'Género e Igualdad. Nivel I'. Plazo inscripción: 15 de septiembre. Curso: septiembre-abril.

> 'Género e Igualdad. Nivel II'. Mayo-Junio 2016.

> 'Empoderamiento de las mujeres a través de la alimentación'. Plazo inscripción: 22 de septiembre.

Taller de masculinidad

Taller para hombres. Mínimo 10 personas.

> Ciudadanía, plazo de Inscripción hasta el 22 de septiembre. Taller: 30 de septiembre.

> Trabajadores del Ayuntamiento. Plazo inscripción hasta el 22 de septiembre. Taller: 1 de octubre.

Berritsu eta Txelotxe udal ludotekak - Ludotecas municipales

Irailaren 14an eta 15ean ludotekak ezagutzea. Izen ematea irailaren 16tik 25era.

Del 14 y 15 de septiembre conoce las ludotecas. Del 16 al 25 de septiembre periodo de matriculación.

Eizu gaztelekua



12-17 urtekoentzat eskaintza. Hasiera irailaren 17an. Irekiera jaia, irailaren 26an.

Servicio para jóvenes entre 12 y 17 años. Inicio el 17 de septiembre. Fiesta de inicio, el 26 de septiembre.